



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/06/17

Ana Otadui aukeratu dabe barriro Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari

Ana Otadui jeltzalea izango da, bigarren agintaldiz jarraian, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, gaur, Eratzeko Osokoa, isilpeko bozketan, aukeratu izan eta gero. Otadui gehiengo osoa lortu dau, aldeko 32 boto lortuz. Lehenengo bozketa horreta 18 boto zuri zenbatu dira.

Gernikako Batzarretxeak Bizkaiko Batzar Nagusien XI. Agintaldiko lehenengo Osokoa jaso dau gaur. Historian lehenengoz, emakume batzarkideak (26) gizonak (25) baino gehiago izango dira. Joan dan maiatzaren 26an egin ziran hauteskundeetan aukeratutako 51 batzarkidek osatzen ditue Bizkaiko Batzar barriak. Horreen artean, Batzarretan jarlekua lehen aldiz hartuko daben 21 izen barri dagoz.

Euzko Abertzaleak taldea ordezkarien gehiengo osotik oso gertu dago, 25 batzarkidegaz. EH Bildu da bigarren taldea, 10 batzarkidegaz, eta bere ostean Euskal Sozialistak (8), Podemos Bizkaia (6) eta, bukatzeko, Alderdi Popularra datoz. Alderdi Popularrak ez dau taldea eratzeko behar besteko ordezkariarik lortu, eta bere ordezkari biak Talde Mistoan sartuko dira.

Ordubete eta erdi iraun dauen Osokoa batzarkide bakotxaren aurkezpenagaz hasi da. Batzarretako aretora sartu eta euren jarlekuan jarriz joan dira. Erreferentzia moduan lehendakaritza hartuta, eta daborduko ohikoa danez, Euzko Abertzaleak eta Talde Mistoak (Popularra) hartu ditue eskumako jarlekuak, eta ezkerrean EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Podemos Bizkaia taldeetako batzarkideak jarri dira.

Horren ostean, Adineko Mahaia osatu da. Lehendakaria Arantza Urkaregi (EH Bildu) izan da. Lehendakariorde biak, adinean bere atzetik dagozan batzarkide biak izan dira, Oscar Arana (Euzko Abertzaleak) eta Juan Otermin (Euskal Sozialistak). Batzarretako Mahaia izentau arte jardun dauen erakunde iragankorraren idazkaritza bie jagoenez, ordezkari gazteenek hartu ditue, Garazi Diaz eta Idoia Inoriza jeltzaleek.

Ana Otadui aukeratu dabe, barriro, Bizkaiko Foru Batzarretako ordezkari nagusi 2019-2023 agintaldirako. Elorrión jaioa eta Zuzenbidean lizentziaua, udalerrri horretako zinegotzi eta alkate izan zan, eta baita Euzko Legebiltzarreko legebiltzarkide be. Gaur hasiko dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari moduan beteten dauen bigarren agintaldia. Begoña Gil (Euskal Sozialistak), be barriro izango da lehenengo Lehendakariordea. Filosofian lizentziaua eta ia 25 urteko ibilbide politikoa dauen sozialista bilbotar beteranoa da. Gilek aldeko 32 boto lortu ditu, eta Zigor Isuskizak (EH Bildu) 16, boto zuri bi izan dituen bozketan.

Holan, bigarren lehendakariordetzea Isuskizak beteko dau. Nekazaritza ingeniaria eta Durango-Arratia mugarteko hautagaia da. Basaurin jaio zan, eta batzarkide moduan beteko dauen bigarren agintaldia eta Mahaiko kide izango dan lehenengoa izango da.

Koldo Mediavilla Getxoko jeltzaleak be bere bigarren agintaldiari ekingo deutso Mahaiko Lehenengo Idazkari moduan, aldeko 32 boto jaso ostean. Kazetaria, Bizkaiko Foru Aldundiko Komunikazio Zuzendari Nagusi eta Lehendakaritzako Idazkari Nagusi izan zan. Emilio Lobato Podemos Bizkaia taldeko batzarkide barria izango da Mahaiko bigarren Idazkaria, aldeko 16 boto eskuratu eta gero. Industria ingeniaria, aurreko agintaldian Lobato Berangoko, bere jaioterriko, zinegotzi izan zan, eta lehenengo aldira da Bizkaiko Batzar Nagusietako kide.

Ana Otaduik Adineko Mahaiko lehendakariaren eskutik jaso dau makilea, eta, altxatu eta gero, Bizkaiko Batzarretako ordezkari gorenari omenaldia eskaintzeko zutik jarri diran batzarkideen txaloaldi luzea jaso dau. Otaduik, bere berbaldiaren haseran, berarengan jarritako konfiantzea eskertu dau, “niretzat oso zorionsua dan egun honetan”, eta horren ostean, bere helburua “bizkaitar guztion eta batzarkide guztion lehendakaria” izatea dala esan dau.

“Arduraz eta erantzukizun handiz hartzen dot gaurkoan kargua. Ahaleginik handiena egingo dot berbearen etxea den Parlamentu honetan politikaren adierazpenik nagusia eman dedin: akordioa eta desbardinaren arteko adostasuna. Hori da herritarrek politikagintzari eskatzen deusiena. Guztiok gara eskaera horren zordun: eztabaida antzuen tentazioa baztertu eta herritarren mesederako akordioak ehun daiguzan”, esan dau Otaduik amaitzeko.

Batzarreko araudiak agintzen dauenez, bere berbaldiaren amaieran Presidenteak Batzar Nagusiak osatuzat jo ditu, eta holan jakinarazo deutso Unai Rementeria Jarduneko Ahaldu Nagusiari. Horren ostean Osoko Bilkura barria deitu dau, ordubete beranduagorako, Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeko kideak izendatzeko xede bakarragaz. Batzorde horretako kideak aukeratu ostean, presidenteak ekainaren 27rako deitu dau Bateriaezintasunen osoko bilkura. Bateriaezintasunen Batzordeko Mahai hori honeek osatu dabe: Jon Andoni Atutxak (Presidente), Arantza Urkaregik (Presidenteorde) eta Ekain Ricok (Idazkaria).

Erakundeen eta senideen presentzia zabala

Gernikako Batzarretxea batzarkideen senidez eta alderdikidez beteta egon da. Bizkaiko Batzar Nagusien XI. Agintaldiko lehenengo Osokoa aretoko azkenengo solairuko jarlekuetatik jarraitu dabe. Itxaso Atutxa, EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko presidenteak arretaz jarraitu dau osoko saioa, bere alderdikide batzuen ondoan, Idoia Bilbao, Loiuko zinegotzia, Gorka Carro Sondikako alkate ohia eta Xaber Zubiaur udalerrri horretako egungo alkatea, beste batzuen artean.

EH Bildutik hainbat ordezkari egon dira. Jasone Agirre eta Julen Arsuaga Legebiltzarkideez gain, aurreko agintaldiko batzarkide ohi gehienak etorri dira Gernikara: Joseba Gezuraga Foru Batzarretako Mahaiko idazkari ohi eta politikari beteranoa, Txusa Padrones, Josu Unanue, Mikel Kormenzana eta Endika Montes.

Talde sozialistatik Susana González Rómulo Enplegu Zuzendaria eta Marian Muñoz Iurretako zinegotzia eta Bizkaiko sozialisten Zuzendaritzako Hauteskunde Ekintzako eta Elkarteekin Harremanetarako idazkaria.

Elkarrekin Podemosen aldetik, hainbat zinegotzi: Bilboko Udaleko Ana Viñals, Getxoko Paula Amieva, Barakaldoko Eder Álvarez, eta Amaia Arenal Vidorreta Bilboko zinegotzi ohia, beste batzuen artean. Batak be ez dau agintaldi honetako lehenengo osokoa galdu gura izan.

Raquel González, Bilboko Udaleko bozeroale popularra, Begoña Urruela taldeko idazkaria eta Esther Martínez eta Beatriz Calvo Alderdi Popularreko batzarkide ohiak be hurbildu dira Gernikako Batzarretxeraino.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/06/2019

Ana Otadui, reelegida Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia

La jeltzale Ana Otadui presidirá, por segundo mandato consecutivo, las Juntas Generales de Bizkaia, tras ser elegida hoy en el Pleno de Constitución y en votación secreta. Otadui ha conseguido mayoría absoluta, obteniendo 32 votos a favor en una primera votación en la que se han contabilizado 18 votos en blanco.

La Casa de Juntas de Gernika ha acogido hoy el primer Pleno del XI Mandato de las Juntas Generales de Bizkaia que, por primera vez en su historia, contarán con más mujeres apoderadas (26) que hombres (25). Un total de 51 apoderados y apoderadas, elegidas en las pasadas elecciones del 26 de mayo, conforman el nuevo parlamento vizcaíno, y entre quienes se contabilizan 21 nuevos nombres que por primera vez ocuparán un escaño en la cámara foral.

Nacionalistas Vascos roza la mayoría absoluta con 25 apoderados y apoderadas. EH Bildu es el segundo grupo, con 10 junteros y junteras, seguido de Socialistas Vascos (8), Podemos Bizkaia (6) y finalmente, de Partido Popular, que no ha obtenido el número mínimo para conformar grupo propio y cuyos dos representantes formarán parte del Grupo Mixto.

El Pleno, que ha durado hora y media, ha comenzado con la presentación de cada apoderado y apoderada, quienes han ido entrando en el hemiciclo para sentarse en su escaño. Tomando como referencia la presidencia y como es habitual, Nacionalistas Vascos y Grupo Mixto (Popular) han ocupado la bancada de la derecha mientras que en la de la izquierda se han sentado apoderados y apoderadas de EH Bildu, Socialistas Vascos y Podemos Bizkaia.

Acto seguido, se ha creado la Mesa de Edad, cuya Presidencia ha ocupado Arantza Urkaregi (EH Bildu). Las dos vicepresidencias han recaído en los dos apoderados que le siguen en edad, Óscar Arana (Nacionalistas Vascos) y Juan Otermin (Socialistas Vascos). En cambio y tal como dicta el reglamento, las dos representantes más jóvenes, las jeltzales Garazi Diaz e Idoia Inoriza, han ocupado las dos secretarías de este órgano transitorio que ha actuado hasta la designación de la Mesa de las Juntas.

Ana Otadui ha sido elegida, de nuevo, máxima representante de la Cámara foral de Bizkaia en la nueva legislatura 2019-2023. Licenciada en Derecho y natural de Elorrio, ha sido concejala y alcaldesa de este municipio, así como parlamentaria en la cámara vasca. Hoy comienza su segundo mandato como Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia. También repetirá en su cargo como Vicepresidenta primera Begoña Gil (Socialistas Vascos), Licenciada en Filosofía y veterana socialista bilbaína con una carrera política de casi 25 años. Gil ha obtenido 32 apoyos frente a los 16 votos que ha conseguido Zigor Isuskiza (EH Bildu) en una votación en la que se han registrado 2 votos en blanco.

La Vicepresidencia Segunda la ocupará así Isuskiza. Ingeniero agrónomo y candidato de la circunscripción de Durango-Arratia, nació en Basauri y éste será su segundo mandato como apoderado y el primero como miembro de la Mesa.

Igualmente, el jeltzale getxotarra Koldo Mediavilla afronta su segunda legislatura como Secretario primero de la Mesa, tras recabar 32 apoyos. Periodista, fue Director General de Comunicación y Secretario General de la Presidencia en la Diputación Foral de Bizkaia. Emilio Lobato, nuevo apoderado de Podemos Bizkaia, ocupará la secretaría segunda de la Mesa, al haber obtenido 16 votos favorables. Ingeniero industrial, Lobato fue la pasada legislatura concejal de Berango, su pueblo natal, y se estrena en las Juntas Generales de Bizkaia.

Ana Otadui ha recibido la makila de manos de la presidenta de la Mesa de Edad y tras alzarla, ha recibido un largo aplauso del conjunto de junteros y junteras, que se han puesto de pie para homenajear a la máxima representante de las Juntas de Bizkaia. Otadui ha comenzado agradeciendo la confianza en ella en un día “muy feliz para mí” para continuar señalando que su objetivo es “ser la presidenta de todos y de todas las vizcaínas y de todos y todas las junteras”.

“A día de hoy tomo mi cargo con gran responsabilidad. Realizaré un gran esfuerzo para que en este Parlamento que es la casa de la palabra, se de la mayor expresión política: acuerdo y consenso entre diferentes. Eso es lo que los y las ciudadanos y ciudadanas piden a la política. Todas y todos somos deudores de esa solicitud: dejemos a un lado la tentación de discusiones inútiles y tejamus acuerdos al servicio de los ciudadanos y las ciudadanas”, ha concluido Otadui.

Como dicta el reglamento de la Cámara, la nueva Presidenta ha declarado, al término de su intervención, constituidas las Juntas Generales, lo que ha comunicado también al Diputado General en funciones, Unai Rementeria, presente en el hemiciclo. A continuación, Otadui ha convocado un nuevo Pleno, que se ha celebrado una hora más tarde, con el único objeto de proceder a la designación de los integrantes de la Comisión Provisional de Incompatibilidades. Elegidos los miembros de esta comisión, la presidenta ha convocado para el 27 de junio a las 9 horas el Pleno de Incompatibilidades. La Mesa de esta comisión de Incompatibilidades está compuesta por Jon Andoni Atutxa (Presidente), Arantza Urkaregi (Vicepresidenta) y Ekain Rico (Secretario).

Amplia presencia de instituciones y familiares

La Casa de Juntas de Gernika ha estado hoy abarrotada de familiares y compañeros y compañeras de partido de junteros y junteras que han seguido el primer Pleno del XI Mandato de las Juntas Generales de Bizkaia desde la bancada del último piso del hemiciclo. Itxaso Atutxa, presidenta del Bizkai Buru Batzar de EAJ-PNV, ha seguido con atención la sesión plenaria, cerca de compañeras de partido como Idoia Bilbao, concejala en Loiu, y de compañeros como Gorka Carro, ex Alcalde de Sondika, y Xaber Zubiaur, el actual Alcalde de este municipio.

De EH Bildu ha acudido una nutrida representación. Junto a la parlamentaria Jasone Agirre y el parlamentario Julen Arsuaga, han acudido a Gernika la mayoría de ex junteros y junteras de la pasada legislatura: el ex secretario de la Mesa de la cámara foral vizcaína y veterano político Joseba Gezuraga, Txusa Padrones, Josu Unanue, Mikel Kormenzana y Endika Montes.

Del PSE han acudido Susana González Rómulo, Directora de Empleo; Marian Muñoz, concejala en Iurreta y secretaria de Acción Electoral y Relaciones con las Agrupaciones de la Ejecutiva de los socialistas vizcaínos.

De Elkarrekin Podemos, concejalas como Ana Viñals, edil del Ayuntamiento de Bilbao; Paula Amieva, de Getxo así como el concejal de Barakaldo Eder Álvarez, además de la ex concejala bilbaína Amaia Arenal Vidorreta tampoco han querido perderse la primera sesión plenaria de esta legislatura.

Raquel González, portavoz popular en el Ayuntamiento de Bilbao, Begoña Urruela, secretaria de grupo, y las ex apoderadas del Partido Popular Esther Martínez y Beatriz Calvo también se han acercado hasta la Casa de Juntas de Gernika.